

Ian Gibson: «Lorca jenio bat da, baina ez naiz hil arte hartaz idazten ariko»

Idazle irlandarrak 'Lorca-Dali. El amor que no pudo ser' aurkeztu du Bilbon

Montse Arregi / Bilbo

Lorca eta Daliren arteko ezinezko amodiozko istorioa kontatzen du Ian Gibson hispanista irlandarrak bere azken liburuan. «Ezinezkoa izan zen Espainia haren metafora da», ziurtatu zuen atzo Bilbon. Biografia gehiago ez duela egingo esan zuen, fikzioa egiteko gogoa duela. Sakonki miresten du Lorca, baina ez du bizitza osoa jenioari buruz idazten igaro nahi.

IAN GIBSON historialariak *Lorca-Dali. El amor que no pudo ser* (Lorca-Dali. Ezinezkoa izan zen maitasuna) liburua aurkeztu zuen atzo Bilbon. Bertan bi jenioen arteko harremana aztertu du, «ezinezkoa izan zen amodioa, Estatu kolpeak ezinezko egin zuen Espainia haren metafora dena». Plaza Janes argitaletxeak



XOUSE SIMAL

Ian Gibson atzo Bilbon, bere liburuaren aurkezpenaren aurretik.

kaleratu eta saritutako liburua da. Mezua duen liburu moduan definitu zuen Gibsonek bere lana. «Homosexuali-

tatea, Primo de Rivera... Jen-deak ezin zuen bere erara bizi. Horregatik da liburu militantea», esan zuen.

Liburuko bi pertsonaien artean zalantzarik gabe Lorca du maiteen Gibsonek. «Bera-rekin identifikatzen naiz;

homosexuala ez naizen arren, neure anaia bai, eta badakit hark familia kristau batean sofritu zuena. Kristautasun instituzionala funtsezko okerra da, gaixotasuna», adierazi zuen.

Buñuel ere tartean

Lorcaren lanean Daliren gauza asko dagoela eta alderantzizkoa ere gertatzen dela deritzo idazleak. Bere esanetan, «Buñuel ere tartean zebilen. Homosexuala ez zen arren, gaiak kezkatzen zuen. Lorca eta Daliren arteko harremana estutzen ari zela ikustean inbidia jotz Pariserara eraman zuen margolaria».

Buñeli buruzko biografia egitea proposatu zion Gibsonek Londreseko bere argitaratzaileari, baina hark «munduan nahikoa ezaguna» ez zela erantzun zion. «Agian fabore bat egin dit, ia 60 urte ditut eta beste bost lan horretan murgilduta ematea...». Izan ere, Gibsonek biografia gehiago ez duela idatziko ziurtatu zuen atzo. «Testu literarioagoak egin nahi ditut, irudimena erabili. Fikziora itzultzeko gogoa daukat, sormenaren alorra lantzeko irrikitan nago», berretsi zuen.